

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO MIKROKREDENTZIAL PROPOSAMENAK AURKEZTEKO DEIALDIA: EHUko mikrokredentzialak

1. AURREKARIAK ETA JUSTIFIKAZIOA

Hala Unibertsitate Sistemaren Legean (2/20023 Lege Organikoa, martxoaren 22koa) nola irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuan esaten da etengabeko edo bizitza osoko prestakuntza unibertsitatearen funtsezko zereginetako bat dela.

Mikrokredentzialak berezko ikasketa labor batzuk dira, helburu dutenak, alde batetik, ikasleek arlo jakin bateko ezagutzak, trebetasunak eta gaitasunak eskuratzea, beren ingurune sozial eta laboralera hobeto egokitzeko, eta, bestetik, gizarte osoan jakintza zabaltzea eta demokratizatzea, jendeari goi mailako hezkuntzarako bidea erraztuz eta inklusio soziala bultzatuz.

Ez da nahitaezkoa lehendik unibertsitate titulurik izatea mikrokredentzialak egiteko: berdin egin ditzakete ikasleek, aktiboan dauden profesionalak, lan bila dabiltzan pertsonak, edo, beste barik, bere jakintza handitu eta ikasten jarraitu nahi duen edonork. Gehienbat, curriculum eta gaitasunak hobetu gura dituzten pertsonen zuzenduta egoten dira, eta aukera ematen dute norberaren premien arabera prestakuntza ibilbidea eratzeko.

Berezko Ikasketen Arautegian (UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2023ko urriaren 19an onartua eta 2023ko azaroaren 22ko EHAAn argitaratua), mikrokredentzialak agertzen dira etengabeko prestakuntzako ikasketen artean (14. art.). Bertan esaten denez, mikrokredentzialak 15 ECTS baino gutxiagoko etengabeko prestakuntzako ikasketak dira, modua ematen dutenak ikastaro laburretan ikasitakoa egiaztatzen duen ziurtagiri bat eskuratzeko.

Hortaz, unibertsitateko mikrokredentzialak etengabeko ikaskuntzarako eredu berritzaile bat dira. Azken urteotan kontzeptu honek indar handia hartu du prestakuntzaren eta enplegarritasunaren eremuan. Europako Batzordeak sustatu ditu mikrokredentzialak, eta Espainia osoko unibertsitate eta prestakuntza erakundeek jarri dituzte abian. Akreditazio hauek modu berri bat eskaintzen dute gaur egungo lan merkatuaren premiak aseko dituzten gaitasun espezifikoak aitortzeko eta egiaztatzeko (Fundae, 2025).

Horregatik guztiagatik, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzak, pauso bat emanez gaur egungo arautegian aurreikusitako unibertsitate hedakuntzako ikastaroetatik harago, eta atea zabaltzeko nahirik ikaskuntza eta enplegarritasuna sustatzeko formula berri honi, deialdi hau egiten du *EHUko mikrokredentzialak* sortu eta abian jartzeko.

2. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdiaren xedea da unibertsitateko mikrokredentzialak —EHUko *mikrokredentzialak*— sortu eta abian jartzeko ekimenak sustatzea.

3. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ETA MIKROKREDENTZIALAK GAUZATZEKO EPEA

Mikro kredentzial berrien proposamenak aurkezteko epea deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta amaituko da EHUko berezko ikasketen arautegi berria indarrean sartzean.

4. ORGANO PROPOSATZAILEAK

Mikrokredentzialak proposatu ahal izango dituzte errektoreak, ikastegiekin (propioek nahiz atxikiek), sailek eta ikergune propioek eta unibertsitate institutuek (propioek nahiz atxikiek). Proposamenak Graduondoko Batzordeari aurkeztu beharko zaizkio.

5. EHUko MIKROKREDENTZIALEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Mikrokredentzialek zuzendari akademiko bat izan beharko dute, eta hori EHUko irakasle-ikertzailea izan beharko da. Zuzendari akademikoa izateko beharrezkoa izango da unibertsitate hedakuntzako diplomak eta ikastaroak zuzentzeko baldintzak betetzea, UPV/EHUko Berezko Ikasketen Arautegiko 30. artikuluari jarraituz.
- Kredentziala beste erakunde batzuekin batera ematekoa bada, onartuko da EHUko zuzendariaren gain, erakunde lankideetako zuzendarikideak ere egotea. Horiek izan ahaliko dira unibertsitateetako langileak, itzal handiko profesionalak, erakunde sozialetako edo enpresa edo entitateetako langileak edo beste administrazio batzuetako kideak.
- Irakaskuntzari dagokionez, programako kredituen % 30 gutxienez EHUko irakasleek eman beharko dute. Salbuespenez, zuzendari akademikoak ehuneko hori murrizteko eskaria egin ahaliko dio, behar bezala justifikaturik, batzorde eskudunari, hark aztertu eta onar dezan.
- Ikastaroak 15 ECTS baino gutxiagokoak izan beharko dira.
- Aurrez aurrekoak, birtualak edo hibridoak izan ahal izango dira.
- Organo proposatzaileak kredentziala babesteko erabaki formal bat eman beharko du.
- Mikrokredentzialak diseinatuta egon beharko dira ikaskuntzaren emaitza jakin batzuk lortzeko.
- Ziurtagiria eskuratzeko, ikasleek bereganatutako ezagutza, trebetasun edo gaitasunen ebaluazio positiboa lortu beharko dute.

- Mikrokredentzialek kalitatea bermatzeko barne sistema baten eskakizunak bete beharko dituzte.
- Mikrokredentziala gainditzen duten ikasleei ziurtagiri digital bat emango zaie, Europass erabiliz.

6. EHUko MIKROKREDENTZIAL BAT DISEINATZEKO GOMENDIOAK

- Lehentasuna emango zaie 1 eta 3 ECTS bitarteko "prestakuntza pilulei". Edozelan ere, 15 ECTS baino gutxiagokoak izango dira beti. Kalkulua egiteko, baliokidetza hau ezarriko da: 1 ECTS = 10 eskola ordu eta 15 orduko lan autonomoa.
- Gomendatzen da orduko prezioa gehienez 125 € izatea, bai irakaskuntzarako eta bai zuzendaritza eta koordinaziorako.
- Gomendatzen da ikastaro bakoitzean 20 ikasle egotea, batez beste. Proposamena bideragarria izateko gutxieneko ikasle kopuru bat zehaztu beharko da, eta kalitatea bermatzeko gehieneko kopuru bat.
- Profesionalei zuzendutako mikrokredentzialekin, beharrezkoa da enpresaren, administrazio publikoaren edo erakundearen interes adierazpen bat aurkeztea, eskaririk egon badagoela frogatzeko.
- Gomendatzen da ikastaroaren baldintzak xede ikasleen premietara egokitzea, ordutegiei, irakaskuntza modalitateari eta, hala badagokio, tokiari dagokienez, hartara prestakuntza bateragarria izan dadin bizitza profesionalarekin.
- Gomendatzen da ikastaroaren hizkuntza kasuan kasuko kolektiboaren eta lan eremuaren arabera egokitzea. Bultzatuko da euskarazko mikrokredentzialak eskaintzea, bai eta jakintzaren bost eremu handietarako proposamenak aurkeztea ere.

7. EHUko MIKROKREDENTZIAL BAT PROPOSATZEKO ETA ABIAN JARTZEKO PROZEDURA

A. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA

- Zuzendari akademikoak mikrokredentziala diseinatu eta grabatuko du, Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzaren jarraibideen arabera. Honako informazio/dokumentu hauek igo beharko ditu plataforma informatikora:
 - Hasierako proposamena igo beharko da GAUR plataformara (gida bat egongo da laguntzeko).
 - Aurrekontua, horretarako emandako Excel txantiloian egina. EHUko organo eskudunak zehaztutako atxikipena aplikatu beharko zaio (kasu honetan, % 18).

- Organo proposatzailearen erabakia. Organo proposatzailea kasuan kasuko fakultatea/ikastegia ez bada, komeni da dekanuari/zuzendariari ematea mikrokredentzial proposamenaren berri.
- Proposatutako ikastaroa enpresa, erakunde edo administrazio publiko batek adierazitako premia edo interesa asetzeko bada, hala egiaztatu beharko da "interes adierazpena" izeneko dokumentuaren bidez.

Eskaria aurkeztearekin, zuzendari akademikoak konpromisoa hartuko du deialdian zehaztutako betebeharrak betetzeko.

Mikrokredentzialaren zuzendari akademikoak Berezko Ikasketen Unitatearen laguntza izango du —Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzaren baitako atal administratibo bat da hori—, eta egin beharreko jakinarazpenak posta elektronikoz bidaliko zaizkio eskariaren sinatzaileari bere kontu korporatibora.

Pertsona batek mikrokredentzial bat baino gehiago zuzendu ahal izango ditu, EHUko Berezko Ikasketen Arautegiko baldintzak betez gero.

B. PROPOSAMENAREN BALORAZIOA ETA ONARPENA

- Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzako teknikariek hasierako proposamena gainbegiratu dute, deialdi honetako baldintzak betetzen dituen ikusteko.
- Graduondoko Batzordeak proposamenaren balorazio akademikoa egingo du, eta, hala badagokio, egokitzapenak egiteko eskatuko dio zuzendari akademikoari.
- Proposamena, organo proposatzailearen erabakiarekin batera, Graduondoko Batzordeari bidaliko zaio, aztertu eta onar dezan, hala badagokio.
- Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzako teknikariek zuzendari akademikoari adieraziko diote proposamena onartua izan den ala ez.
- Proposamena onartuz gero, kredentziala ezagutzera emango da EHUko webgunearen bidez, eta matrikularako epea zabalduko da.

Galderarik izanez gero proposamena aurkezteko plataforma informatikoaz, aurrekontuaz, mikrokredentzialaren inguruan webgunean argitaratuko den informazioaz edo matrikularen kudeaketaz, errektoreordetza honetako berezko ikasketen arloko langileengana jo ahal izango da.

C. EHUko MIKROKREDENTZIALAK ABIAN JARTZEKO PROZESUA

- Matrikularako epea behin itxita, mikrokredentzialaren zuzendari akademikoari matrikulatutako ikasleen zerrenda bidaliko zaio.
- Zuzendari akademikoak bermatu beharko du matrikularako epea amaitzen denerako aurrekontu oreka dagoela sarreraren eta gastuen artean, eta hori hala dela erakusten

duen Excel dokumentua bidali beharko du mikroak@ehu.eus helbidera, onar dadin eta plataforman eguneratu, behar izanez gero.

- Era berean, ikasleak ere matrikulatuko dira plataforman eta zuzendari akademikoari zerrenda bat bidaliko zaio, ikastaroan matrikulatutako pertsona bakoitzaren erabiltzaile eta pasahitzarekin, haiek ere plataforman sartu ahal izan daitezen.
- Zuzendari akademikoak plataforman sartzeko xehetasunak bidaliko dizkie matrikulatutako ikasleei, bai eta ikastaroaren hasieraren eta garapenaren inguruko bestelako informazioa ere, egoki baderitzo. Horretaz gain, edukiz hornituko du gela (programa, edukiak, ebaluazio sistema, etab.).

D. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

- Ikastaroa amaitutakoan, zuzendari akademikoak parte hartzaileen ikaskuntzaren emaitzak ebaluatu beharko ditu aurrez zehaztutako sistemaren bidez, eta ebaluazioa argitaratuko du, gai/ez gai kalifikazioekin.
- Eskolak amaitutakoan, gogobetetze inkesta pasatuko zaie ikasleei, irakasleei eta zuzendari akademikoari.
- EHU mikrokredentzialen kalitatearen jarraipenari dagokionez, zuzendari akademikoak behar den informazioa sartu beharko du EHuko UNIKUDE plataforman. Horrela, ikastegiek plataforma horren bitartez egin ahal izango diote kalitate jarraipena mikrokredentzialari.

E. EHuko MIKROKREDENTZIALEN ZIURTAGIRIAK

Unibertsitateak mikrokredentzialen ziurtagiri digitalak emango ditu *Europass* plataforman, *European Learning Model* (ELM) estandarren arabera, EDC gisa (*European Digital Credentials for Learning*).

Ziurtagiri horiek Europako Hezkuntza Eremuko estatu guztietan daude aitortuta eta paperezkoen balio bera dute.

Ziurtagiria emateko tasa bat ezarriko da, unibertsitate-hedapeneko ikastaroaren baliokidea izango dena.

8. KUDEAKETA EKONOMIKOA

Deialdi honetan *EHuko mikrokredentzialen* kudeaketa ekonomikoa egingo da indarrean dagoen EHuko Berezko Ikasketen Arautegiaren arabera, zehazki VIII. titulua aplikatuz ("Berezko ikasketen finantzaketa eta kudeaketa ekonomikoa"):

Araudi honetan arautzen diren ikasketa propioak autofinantzatu egingo dira beti, eta proposamenean orekatuta egon beharko dira dirusarrerak eta gastuak.

49. artikulua. - Gune organikoak irekitzea eta ixtea.

50. artikulua. - Sarrerak.

51. artikulua. - Matrikulen diru sarrerak.

52. artikulua. - Dirulaguntzen sarrerak.

- 53. artikulua. - Superabita.*
54. artikulua. - Prezioak.
55. artikulua. - Gastuen gestioa.

Gaur egungo arautegiko 5. artikuluari jarraituz: *Titulua antolatzeaz eta kudeatzeaz arduratzen den organoko Teknikariek eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileek (TEKAZEL) egingo dituzte, oro har, kudeaketa lanak.*

Deialdi honetan Berezko Ikasketen Unitatea arduratuko da mikrokredentzial bakoitzaren gune organikoa irekitzeaz eta ikasleen matrikulak kudeatzeaz.

9. PUBLIZITATEA

Ikastaro hauen material eta publizitate guztietan Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) logoa agertu beharko da. Beste erakunde batzuekin batera ematen badira, kasuan kasuko enpresa, erakunde edo administrazio publikoen logoak ere agertu ahal izango dira.

10. JUSTIFIKAZIOA

Deialdi honetan onartutako mikrokredentzialen zuzendariek behar diren justifikazio dokumentu guztiak aurkeztu beharko dituzte, bereziki sarrerei eta gastuei dagozkienak. Horretarako, aurrekontu eguneratua aurkeztuko dute, behin betiko gastuen arabera.

Ainhoa Berasaluze Correa
Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako errektoreordea
Vicerrectora de Posgrado y Aprendizaje Permanente